

JUAN SAN MARTIN GOGORATUZ

Joxan Arbelaiz



Bizitza guztia euskararen defentsan aritutako Juan San Martín Ortiz de Zarate hil da, aurtengo maiatzaren 30ean, Hondarribiako hirian, 82 urte zituela. Euskal kulturaren gizon handia, euskaltzain osoa eta Euskadiko lehen Arartekoa, lan ugari du egina Juan San Martinek: besteak beste, 50 publikaziotik gora, horietako 20 euskaraz.

Jorratu dituen kulturaren alor askotarikoak ikusirik, Errenazimenduko gizon unibertsala genuen Juan San Martin.

Eibarren jaio zen, 1922ko ekainaren 23an. Bertan egin zituen lehen ikasketak eta 14 urte zituela lehertu zen Españako gerra. Bere aita Valentziara joan zen errepublikaren aldeko armadarekin eta ama lau seme-alabekin itsasoz Bordelera ihes egiten ahalegindu zen. Baina frankistek ontzia harrapatu eta El Ferrolera desbiratu zuten. Handik Eibarrera itzuli ziren.

Bizimodu berriari ekin behar izan zioten eta Juan gaztea tornero lanetan hasi zen, gaeuz eskolara joaten zelarik. Irakurle sutsua zen ordurako eta autodidakta halabeharrez.

Urte hauetan piztu zitzaion, inoiz galduko ez zuen mendi eta espeleologiarako zaletasuna; mendiarri buruz idatzi zituen bere lehenengo idazlanak Eibarko kirol elkarteko buletinean eta Pirenayca aldizkarian.

Mendizale trebea eta saiaturia izan zen. Naranco de Bulnes hiru bide desberdinetatik igo zuen eta baita Pirinio eta Alpeetako hainbat gailurreko bide berriak egin eta maiz ibili ere.

Soldadutzan zela, amari euskaraz idazteko adina ezaguerarik ez zuela konturatzean, bere

burua alfabetatu behar zuela erabaki zuen eta bakarka ekin zion lan horri. Gerora, alfabetatze kanpainen sortzaile eta bultzatzaile nagusia izan zen.

Handik aurrera kultur gaiei buruzko artikulu ugari idatzi zituen, hasera batean Anaitasuna eta Euzko Gogoa aldizkarietan batez ere. Baina ez bakarrik, Euskal Herriko aldizkari gehienetan kolaboratu baitzuen; bereziki aipagarriak dira hainbat herrietako aldizkari eta urtekarietan argitaratutako lanak.

Horren froga dugu OARSO aldizkarirako hogeitau urte luzetan egindako kolaborazioak; beti ere, gure herriarekin loturiko gaiak jorratuz eta beraiei buruzko bere iritzia argia eta arrazoitua emanaz. Horren adibide, 1997. urtean idatzitako "Errenteriaren izena dela eta" artikulua gure herriaren izenari buruzko auziaz.

Bide berriak urratuz aritu zitzaigun poemagintzan publikatzen hasi zenetik, Otsalar ezizenez hasera batean. 1998. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratu zion bere poemagintza osoa, "Giro gori" (Tiempo ardiente) titulupean.

Idaztea ez da poesiari egin dion aportazio bakarra; poeta gazteen defendatzaile izan genuen hirurogeigarren hamarkadan eta ahotsa eman zion "Uhin berri" antologia argitarara emanaz.

Gabriel Arestiren poesiaren balioa ere atzematen eta garaiko aurkariaren aurrean sutsu defendatzen jakin zuen. Bilboko poetak "Harri eta herri" liburua argitarara eman zuenean, Juan San Martinek egin zion hitzaurrea.

Euskaltzaindian eginiko lana, bestetik, eredu-garria da. Urgazle egin zuten 1957. urtean eta 1964. ean euskaltzain oso izendatu zuten; 1967tik 1978 arte erakundearen idazkari izan zen eta Euskaltzainburu-orde 1978. urtean.

1968an, Arantzazun euskararen batasunari buruz egindako kongresuan idazkari genuen eta bere jarrera oso aktiboa izan zen Koldo Mitxelena-ren tesien alde. Baita ondoren piztu zen eztabaida luze eta garratzean ere. Koldo Mitxelena alboa izan zuen beti Juan San Martinen arnas nekaezina.

Egan aldizkariko zuzendaritza ere konpartitu zuten bi adiskideek eta, Mitxelena-ren heriotzaren ondoren, Juan San Martinek bakarrik zuzendu zuen aldizkaria 1989 arte.



Juan San Martin 1996ko abenduaren 23an Koldo Mitxelena sariaren 4. edizioko saria ematen. Bere eskuinaldean Miguel Buen Lacambra alkatea eta Gema Artola (PSE-EE) eta Juan Ignacio Gurrutxaga (EA).

Horregatik, herriko udalak Koldo Mitxelena, bere heriotzaren ostean, Errenteriako seme kuttuna izendatu zuenean, Euskaltzaindiaren lehendakaria zen Jean Haritschelarekin batera, ezinbestekoa zen Juan San Martinen partaidetza gertakari hartan. Eta horrela etorri zitzaigun Juan bere lagun eta euskaltzain-kideren omenaldira.

Francoren heriotzaren ondoren, gizartea tentsio gorrian zen une hartan, egin zuen Juan San Martinek lehen inkurtsioa eta bakarra politika aktiboan, ESEIn afiliatu zelarik. Bere euskaltzaletasunak, Eibartik zetorkion sozialismorako joerak eta borroka armatuaren zentzugabekeriaren uste osoak bultzatu zuten militantzia horretara. Partidoa 1981. urtean desegin zenetik ez zuen inoiz beste karnetik eskuratu.

Urte bertsutan, Euskal Kontseilu Orokorra osatu zenean, euskal ondare artistikoaren babeserako aholkulari lanetan aritu zen.

1989. urtean Euskadiko Arartekoa izendatu zuten, partidu guztien oniritziarekin. Kargu guztiz berria zen gure artean. Inongo erreferentziarik ez zuen lan hori martxan jartzeko eta bide berria asmatu eta urratu beharrean aurkitu zen.

Berarekin solasean, kargu honetan izandako esperientziak hitz egin genuenean, behin baino gehiagotan aitortu zidan oso arduratua zegoela eskubide linguistikoaren urraketen aurrean. Eta bidegabekeri honetaz partidu politikoek zuten erantzukizunaz.

Ararteko lanean izandako emaitza onek eraman zuten Europako Ombus-en lehendakaritzara 1994. urtean. Europa mailan, Ararteko karguak duen goren mailako ardura.

1995ean erretiroa hartu zuen eta azken urte hauetan, Hondarribiako herriarekin loturiko ikerketek ekin zion. Hogeita hiru urte zen Hondarribian bizi zela eta guztiz bat egin zen herriarekin, kolaboratuz era guztietako ekintza kulturaletan.

Ikerketa hauen fruituz, Euskal Herriko giza hezurkin zaharrena aurkitu zuen Jaizkibelgo aztarnategi batean.

Hondarribiari oparitutako ikerketa eta lanen artean, bereziki aipagarriak dira, "Sagarrondoko Jasokundearen Andre Mari" elizari buruzko lan mardula; "Antzinatek gaur egunera. Hondarribia" titulupean Hondarribia aldizkarian argitaratutako artikuluak biltzen duen liburua; eta "Boletín de Estudios del Bidasoan" argitaratutako "Paleolitos garaiko aztarnak Hondarribian".

Eusko Ikaskuntza, Aranzadi, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, eta beste hainbeste elkarteko kide izan zen eta denotan aktiboki kolaboratu zuen. Horretarako denbora eta kemena nondik ateratzen zuen jakiten ez da erraza izango.

Egindako lan eskerga honen aitortpena izan du eta ondo merezitako omenaldiak jaso ditu azken urteotan. Gerediaga elkarteak Durango liburu eta diska azokan 2.002. urtean eskaini zion argizaiola, Koldo Mitxelena Kulturuneak bere omenez antola-

tutako zikloa, Eusko Ikaskuntza-Euskadi Kutxaren Humanitate saria, Hondarribia eta Eibarko seme kuttunaren izendapena eta beste hainbeste.

Gaur, agur esateko momentuan, ondo gogotan ditut Juan San Martinek egindako lanak; baina, batez ere, gizona gogoratzen dut: laguntzeko beti prest, ordainik gabeko kolaborazioak nonahi eskaintzen zekiena, inoiz oparoa izateko joerarekin hitzun eta esatari egokia, apala, gizona.



Juan San Martin (txapeladuna) Koldo Mitxelenari Errenteriako Udalak 1987ko azaroaren 22an egin zion omenaldian. Ezkerreko aldean Jon Bagüés eta Esteban Los Santos. Eskuineko aldean Juan Garmendia, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi eta Agustin Agirre zinegotzia.